

LAUDIOKO SAN ROKE JAIK 2017 PREGOIA

A I A R A L D E A G A U R

DENON ESKUTIK, DENON ESKURA

Euskara lo dago begiak itxita dituenarentzat. Aspaldi hartu zuen lehen arnasa, ordea. Egia da: mila aldiz erori da; eta beste hainbeste aldiz mugitu dugu burua eskuin-ezker, bidea zeharkatu aurretik. Eskutik lagundu dugu aldamenekoa pausoa eman edota erritmoa hartu arte. Ikasi eta irakatsi dugu hanka sartzeak ez duela inporta, ekinez lortzen baita bidea.

“Atzera begiratzuz gero, aurrera egin duzula jakiteko izan dadila”, dio esamoldeak. Euskalduntzea heldu beharreko geltokia ez ezik, bizitzeko modu ederrago bat dela aski ondo ikasi baitugu guk.

*Kantabriako ixasora
zoazten
urak,
Altube, Okendo, Nerbion,
Aialako lurra,
behin euskalduna,
orain lur erdalduna...*

Gabriel Arestiren hitz hauen abaroan ekin genion bideari 2010 ez horren urruti hartan, “behin euskalduna, orain lur erdalduna” hura gogoan. Laudioaren hazia izan ziren Larra, Goienuri, Larrazabal eta Olarte auzoetako herritarrak ere halaxe mintzatzen ziren ez oso antzina, hala kantatu eta dantzatzen zuten, hala ospatzen zituzten jaiak ere, eta hala ziren euskaldun, eta laudioar.

El euskera duerme a los ojos de quien no le presta atención. En cambio, hace muchísimo tiempo que empezó a latir. Y así es: ha tropezado cientos de veces; y en otras tantas ocasiones hemos tenido que mirar a ambos lados antes de seguir adelante. Hemos tendido la mano a las personas que nos rodeaban, hasta que han dado el paso o se han adaptado al ritmo. Hemos aprendido y enseñado, a su vez, que errar no tiene importancia, que se hace camino al andar.

Ya lo dice la expresión: “si miras atrás, que sea para saber que has avanzado”. La euskaldunización no es solo una estación a la que llegar; nosotras hemos comprobado en nuestras carnes que también es una forma de vivir mas bella.

*Aguas que
desembocáis
en el cantabrico,
Altube, Okendo, Nervion,
tierra de Ayala,
antes euskaldun,
ahora castellana...*

Al abrigo de estas palabras de Gabriel Aresti, comenzamos nuestra andadura en un 2010 no tan lejano, recordando sus palabras: “tierra antes euskaldun, ahora castellana”. Hace no tanto tiempo, las vecinas de los barrios de Larra, Goienuri, Larrazabal y Olarte, semilla de lo que mas tarde sería Laudio, también vivían en euskera, y así cantaban y bailaban, así celebraban

Despois chegaron as páxinas máis negras do pobo do euskara, encerraron a nosa lingua nunha noite escura e pechada, en en longas décadas negaron iso que nós eramos.

Máis cando o ditador estaba a piques de morrer, a lingua celosamente guardada no colo do lume da nai rompeu a rixida parede, e as que agora son as avoas das nosas netas comezaron a labrar sementes de luz. Apuntándose nas gau-eskolas despois das horas de ferro das fábricas, construíndo ikastolas na raia da lei, dando á nosa lingua un novo impulso.

Euskararen herriaren orrialderik beltzenak etorri ziren gero, gau ilun eta zarratuan sartu zuten gure hizkuntza, eta ginen hori ukatu egin zuten hamar-kada luzeetan.

Diktadorea hil urren zegoenean baina, amaren suaren magalean “celosamente gordetako” hizkuntzak pareta zurruna zartatu zuen, eta argi haziak ereiten hasi ziren orain gure iloben amamak diren horiek; fabrikako burdin orduen ostean gau eskoletan izena emanez, legearen mugetan ikastolak irekiz, gure hizkuntzari arnas berria emanez.

Lubaki horretatik jaiotako alabek ekin zioten 2010 urte hartan Aiaraldea hedabidearen trena hauspo-tzeari: izan ziren Lucia, Izar, Josu, Aitor, Gartzen, Edorta, Ane, Asier, Garazi, Irati, Jon, Txabi eta Mateo. Izan ziren Iñaki, Garrastatxu, Andima, Alfredo, Enara, Goretti, Christian, Miren, Angela eta Ruben. Eta gerora etorri diren hamaika zoro gehiago ere izan ziren, eta izango dira, zorionez.

Eta auzoari begiratu genion orduan ere, inguruak eta ingurukoek egiten gaituztelako gu ere; ni baina, gu garelako delako. Eta batzuetan, Laudion, ahaztu egiten zaigu hori, gehiegi begiratzeko baitio-gu gure zilborrari.

Begirada altxa eta Orozko topatu genuen bertan, Itxinaren magalean, Arakaldo, Arrankudiaga eta Zollo, Okondo, Aiara, Amurrio, Artziniega eta Urduña, bide berari ekin nahi zioten hamaika ahizpa bertan ere. Ezen eta, pertsonak osatzen dituzten komunitateetan bezala, ondoko herriek ere ezaugarritzen dute norberarena...

Guk eskualdetasunean sinisten dugu, Aiaraldea osatzen duten giza-harreman horien indarrean, nor-tasunean, eta batez ere, etorkizun berri bat marraz-

sus fiestas. Era el euskera lo que las hacía euskaldunes, y laudiorras.

Luego, llegaron los años más negros del pueblo del euskera, condenaron nuestra lengua a la más tétrica oscuridad, y durante largas décadas negaron aquello que eramos, nuestra propia existencia.

Sin embargo, en el lecho de muerte del dictador, la lengua celosamente guardada por nuestras madres al calor de los hogares agrietó los muros de aquellas casas que la protegían, y las que ahora son las abuelas de nuestras nietas comenzaron a sembrar rayos de esperanza para nuestro idioma; estudiando de noche -después de largas horas de trabajo en la fábrica- el euskera, creando las ikastolas al filo de la legalidad, devolviendo, en definitiva, el aliento a la lengua que nos hacía vivir, soñar, bailar y festejar.

Son las hijas nacidas en aquellas trincheras las que en 2010 comenzaron a alimentar el medio de comunicación Aiaraldea: fueron Lucia, Izar, Josu, Aitor, Gartzen, Edorta, Ane, Asier, Garazi, Irati, Jon, Txabi y Mateo. Fueron también Iñaki, Garrastatxu, Andima, Alfredo, Enara, Goretti, Christian, Miren, Angela y Ruben. Fueron cada vez más y más soñadoras las que con su esfuerzo y aportación desinteresada hicieron de Aiaraldea lo que es hoy. Y por suerte, en el futuro todavía serán muchas más.

Fue entonces cuando miramos a nuestras vecinas, porque es precisamente aquello que nos rodea lo que nos hace ser como somos; porque si yo soy, es porque nosotras somos. Y a veces, en Laudio, se nos olvida eso, de tanto mirar a nuestro ombligo. Así, levantamos nuestra mirada y nos encontramos de par en par con Orozko, a la sombra del Itxina, con Arakaldo, Arrankudiaga y Zollo, con Okondo, Aiara, Amurrio, Artziniega y también con Urduña, y en todos esos pueblos encontramos hermanas que también querían andar con nosotras el mismo camino. Ya que, al igual que pasa en las comunidades de personas, los pueblos de nuestro alrededor también caracterizan el nuestro propio.

Creemos en nuestra comarca, en la fuerza y la identidad de las relaciones humanas que forman Aiaraldea. Y, sobre todo, creemos en la motivación colectiva para dibujar un nuevo futuro... Desde Laudio

teko grina kolektibo batean sinisten dugu... Laudiotik Soxogutira, Erbitik Zaloara eta Urduñatik Erretesera. Izan nahi dugulako izango baikara.

“Proiektu berri bat dugu esku artean, eskualdekoa...” zurrumurrua hedatu eta ekin genion lehen harria jartzeari, euskaraz bizi eta arnastuko zuen eskualderako komunikazio proiektu bat egituratzeari, izan ere, erdara zen nagusi tokiko komunikabideetan; eta, ondorioz, informazioa jaso eta zabaltzeko hizkuntza ohituretan. Hala, kezka eta ideiak partekatuta eman genituen lehen urrats haiek, sekretu eder bat gordezten duenaren irrikaz egin ere.

Bakoitzak nahi zuen hori, bizigarri zitzaigun hori eta nahi genuen tamainan emanda, haziak landatzen hasi ginen: interneten abilak zirenak webgunea erakitzen, argazkizaleak eskualdeko herrietako jarduerak eta jaiak irudi bidez jasotzen, informazioa ematen, jasotzen, kazetari hasiberri herabearen papera betetzen... ibiliaz bidea egiten. Eta ene! Zein ederrak izan ziren urte haiek.

Berde geundela genioen; 2010eko apirilaren 17an loratu ginen arte: egun hartan zabaldu zen aiaraldea. com ataria, Aiaraldea Komunikazio Leihoa, gerora puntu eus deitura hartu eta “Aiaraldea Gaur” izena hartu duena. Geroztik, 300 kolaboratzaile baino gehiago batu dira 30 lagun haiek hasitako bidera. Laudiora bezala, Urduña, Amurrio, Okondo, Artziniega, Aiara, Arrankudiaga-Zollo, Arakaldo eta Orozkora ere garraiatu dugu euskara albisteetan, argazki bildumetan, bideoetan, elkarrizketetan... Auzolanean, egiten dugun horretaz gozatzen.

قد وجدتمون كل 15 يوما في محطة القطار أو الحافلة، نوزع من يد إلى يد تلك 40 غم من الورق المكتوب بأوسكر، لك أنت أنيسبي، المهندس، لك أنت روسا، لجة التي تستيقظ باكرا من أجل أن ترافق أحفادها إلى المدرسة. لك أنت كبا، لك أنت فاطمة، التلميذة، التي أدواتها تحت إبطها والإبتسامة العريضة لا تفارق وجهها للباغا المتجولين، للمنظفين، لأصحاب المقاهي والحانات، وكل محب بتشسو بوطي. يسعدنا أن نرى أن الإوسكرا لها مكانها الخاص بين الآلاف من الأشخاص الذين يفتحون هذه الجريدة كل 15 يوما. أيارالديا إمين. يسعدنا أن نرى أن الأشخاص الذين يدرسون الإوسكرا أ. أو. تقريبا نسوها يستقبلون هذه الجريدة من يد أطفالهم. يثلج قلبنا عندما نرى أن الإوسكرا في تقدم تصاعدي و مستمر

Tren edo autobus geltokietan eskura eman dizkiogu hamabostean behin egunkari orritan bildutako 40 gramo euskara Ainize arkitektoari, biloba eskolara eramateko goizean goiz kalera doan Rosa amonari, kiosko zein okindegiko Kepa langileari, apunteak eta irribarrea beti besapean dituen Fatima ikasleari,

a Soxoguti, desde Erbi a Zaloa y desde Urduña a Retes. Seremos, porque así lo queremos.

“Tenemos entre manos un nuevo proyecto, a nivel comarcal...”: El rumor se extendió, y nos unimos para colocar la primera piedra de un proyecto comunicativo que tenía como objetivo una comarca euskaldun. El castellano predominaba en los medios locales y en los hábitos lingüísticos de la comarca, a la hora de recibir y compartir información. Así, el medio Aiaraldea dio aquellos primeros tímidos pasos, compartiendo inquietudes e ideas, con las ganas de quien guarda un preciado secreto lleno de futuro.

Comenzamos a plantar pequeñas semillas desde aquello que quería hacer cada una de nosotras, desde aquello que nos motivaba y aportando en la medida en la que queríamos aportar: las más hábiles en internet construían la página web, las aficionadas a la fotografía recogiendo actualidad y festejos, otras informando, cumpliendo el rol de periodistas principiantes... Haciendo camino al andar. ¡Qué hermoso fue aquel inicio!

Decíamos entonces que aún estábamos verdes; hasta que nacimos el 17 de abril de 2010. Aquel día abrimos el portal aiaraldea.com al mundo, Aiaraldea Komunikazio Leihoa, que más tarde tomó como apellido “puntu eus” y recientemente ha pasado a llamarse “Aiaraldea Gaur”. Desde entonces se han unido más de 300 colaboradoras al camino emprendido por aquellas 30 personas. Y en este tiempo hemos acercado día a día el euskera a Audio, Urduña, Amurrio, Okondo, Artziniega, Aiara, Arrankudiaga-Zollo, Arakaldo y Orozko, mediante noticias, galerías fotográficas, vídeos, notas de agenda, entrevistas... Y lo hemos hecho entre todas, disfrutando de lo que hacemos, a sabiendas de que avanzamos en el camino emprendido.

Cada quince días, nos habéis encontrado en las estaciones de tren o autobús, repartiendo esos 40 gramos de papel en euskera de mano en mano: a ti Ainize, arquitecta; a ti Rosa, abuela que madrugaba para llevar a tu nieta a la escuela; a ti Kepa, panadero; a ti Fatima, estudiante que vas siempre con los apuntes y una sonrisa bajo el brazo; a vendedores callejeros, limpiadoras y taberneras, y a las amantes del

kale saltzaile edota garbitzaileari, pintxo-poteen maitaleari eta tabernariari... Zer poza ematen digun ikusteak Aiaraldea Hemen egunkaria irekitzen duten milaka herritarraren bizitzan euskarak kabi txiki bat egiten duela aldiro, eskolako haurrak guraso euskaldun berriari periodikoa ematen diola, hizkuntzaren transmisioak abiadura hartzen duela...

Aquel pequeño proyecto ha crecido sin parar, hasta conseguir que el proyecto comunicativo más fuerte de la comarca sea el del euskera. ¡Quién nos lo iba a decir! Por que el nuestro no es un proyecto comercial al uso que surge del capital de las grandes empresas de comunicación. El nuestro, como todas las cosas que merecen la pena, es un proyecto alimentado día a día entre todas (en auzolan) y que tiene como combustible la ilusión de la gente de la comarca. Eso es lo que nos hace diferentes.

Durante estos siete años, hemos soñado y hemos vivido en euskera, hemos dibujado nuevos horizontes, y lo más importante; las personas que creemos en el futuro de nuestra lengua hemos creado una pequeña comunidad que no para de crecer a lo largo y ancho de la comarca. Así es; cada vez somos más las personas y agentes sociales que formamos parte de la plaza del euskera.

Eta herritarrek ereindako proiektua haziz joan da etengabe, eskualdean indar handiena duen komunikazio proiektua euskararena bihurtu arte. Ezen eta gurea ez da komunikazio enpresa handien kapitaletik sortutako proiektu komertzial bat, gurea, gauza eder guztiak bezala, herritarrek auzolanean eta bizipozez egituratutako proiektua da. Eta horrek egiten gaitu ezberdin.

Zazpi urteko ibilbideari esker, amestu ez ezik, euskaraz bizi izan gara, zeruertz berriak zirriboratu ditugu, eta denetan inportanteena dena, “bagarela nor” sinisten dugunok gero eta handiagoa den komunitate txiki bat osatu dugu, eskualde luze-zabalean. Eta egia da, geroz eta norbanako zein eragile gehiago elkartzen ari gara euskararen plaza eder honetan.

Proiektuan diharduten lagun guztiei esker ari garaosatzen Laudioko eta eskualdeko kultur, kirol eta herri bizitzaren artxiboa, historia gordetzen, harreman sare berriak loratzen, kultur aniztasuna jendar-

pintxo-pote. Nos llena de alegría ver que el euskera se hace un hueco en las vidas de miles de personas que abren quincenalmente el periódico “Aiaraldea Hemen”, ver a personas que están aprendiendo euskera, o que casi lo han olvidado, recibir el periódico de la mano de sus hijas... Comprobar que la transmisión del euskera coge impulso nos llena el corazón...

Aquel pequeño proyecto ha crecido sin parar, hasta conseguir que el proyecto comunicativo más fuerte de la comarca sea el del euskera. ¡Quién nos lo iba a decir! Por que el nuestro no es un proyecto comercial al uso que surge del capital de las grandes empresas de comunicación. El nuestro, como todas las cosas que merecen la pena, es un proyecto alimentado día a día entre todas (en auzolan) y que tiene como combustible la ilusión de la gente de la comarca. Eso es lo que nos hace diferentes.

Durante estos siete años, hemos soñado y hemos vivido en euskera, hemos dibujado nuevos horizontes, y lo más importante; las personas que creemos en el futuro de nuestra lengua hemos creado una pequeña comunidad que no para de crecer a lo largo y ancho de la comarca. Así es; cada vez somos más las personas y agentes sociales que formamos parte de la plaza del euskera.

Gracias a todas las personas que participan en nuestro proyecto estamos creando el archivo de la vida cultural, deportiva y popular de Laudio y de la comarca, recogiendo Historia e historias, tejiendo nuevas redes entre la gente, socializando la diversidad cultural, reforzando la visión de género, difundiendo el trabajo de las creadoras de la comarca, informando acerca de proyectos transformadores locales, fomentando el uso del euskera... Al fin y al cabo, poniendo al alcance de todas lo que construimos día a día juntas.

En los últimos años, hemos compaginado el auzolan con la profesionalización que nuestra lengua también merece, sumando el trabajo asalariado a todas esas aportaciones voluntarias. Hemos crecido mucho, casi hasta dar vértigo, pero ¿acaso el euskera no merece tener el mismo lugar que el resto de las lenguas? Miremos a nuestro alrededor: el castellano lo tiene todo, y el

teratzen, genero ikuspegia areagotzen, eskualdeko sortzaileen lanak ezagutarazten, tokiko proiektu eraldatzaileen berri ematen, euskararen erabilera sustatzen... Laburbilduz, denon eskutik egindakoa denon eskura jartzen.

Auzolana, gure hizkuntzak ere merezi duen profesionalizazioarekin uztartu dugu azken urteetan, boluntarioen lanari soldatapeko langileena gehituta. Asko hazi gara bai, ia-ia bertigoa emateraino, azkar goazela entzuten dugu bazterretik, baina euskarak ez al du behar erdarek duten leku bera ala? Erreparatu zuen inguruari, gaztelaniak dena dauka, eta euskarak aldiz gu baino ez gaitu. Eman diezaiogun luzaz bizitzeko behar beste tresna eta arnas.

Elkarte txiki eta ezdeus hori zena hazi egin da bai, eta etorkizunari begira ere jarri gara, zeruertz berriak ezarri ditugu helburu, eta hauetara ailegatzeko tresna berriak egikaritu. Elkartea irabazi asmorik gabeko gizarte ekimeneko kooperatiba bihurtu berri da orain, eta erronka zirrargarriei heltzeko gertu dago; bizitzaren esparru guztietan euskaraz bizitzeko hamaika egitasmu abiarazteko gertu. Ekintzen faktoria bat izango gara, Aiaraldea Ekin-tzen Faktoria.

Euskaratik eta euskaraz eraiki nahi ditugu eskualdean dauden kultura ezberdinen arteko zubiak. Euskaratik eta euskaraz eman nahi diogu buelta gizonezkoak emakumeak zapaltzera bultzatzen dituen harreman-sistemari. Euskaratik eta euskaraz garatu nahi ditugu harreman ekonomiko berriak eskualdeko herritarren artean, euskaratik kultura sortu, euskaratik desberdin hezi eta hazi, elikatu, bizi, maitatu, erlazionatu... Jendartearen eraldatzeko norabidean jarri gara, euskarak, ondo bizitzeko, hobeto bizitzeko aukera eman diezagun luzaroan, modu horretan soilik biziko baita hizkuntza etorkizunean ere.

Horretan gabiltza eta horretara goaz, bidean erortzeko beldurrik gabe. Jauzia ematera goaz, bai. Zuekin. Zuentzat.

Eta horrela ulertzen ditugu Laudioko Jaiak ere. "Euskaldunak Pirinioen bi aldeetan kanta eta dantza egiten duen herria" omen gara, eta aiaralदारok eta laudioarrok ere hala nahi dugu bizitza ospatu; dantza eta kanta egin nahi dugu, euskaratik eta euskaraz, jendarte hobeago baten alde, gure komunitatearen alde, herritarren alde, eraldaketaren alde, emakumeen alde, bazter-

euskera, solo nos tiene a nosotras, a cada una de nosotras. Démosle pues las herramientas que necesita para que viva en el futuro.

Lo que al principio fue una pequeña asociación ha crecido sí, y lógicamente, nos hemos puesto a dibujar nuestro futuro próximo; fijándonos como objetivo nuevos horizontes y nuevas herramientas para alcanzarlos. Acabamos de convertir nuestra pequeña asociación en una cooperativa sin ánimo de lucro de iniciativa social, y tenemos las manos llenas de retos aun más ilusionantes dirigidas a crear nuevos proyectos que nos ayuden a vivir en euskera en todos los ámbitos de nuestras vidas. Pronto seremos una factoría de iniciativas, seremos Aiaraldea Ekintzen Faktoria.

Esa factoría quiere construir puentes entre las culturas que conviven en nuestra comarca, y queremos hacerlo en euskera y desde el euskera. Es en euskera y desde el euskera desde donde queremos darle la vuelta al sistema de relaciones que lleva a los hombres a oprimir a las mujeres. Es en euskera y desde el euskera, desde donde queremos desarrollar nuevas relaciones económicas entre la gentes de nuestra comarca, crear cultura, aprender y crecer, alimentarnos, amar, trabajar, relacionarnos... en euskera y desde el euskera. Queremos transformar nuestra sociedad, para que el euskera nos de la oportunidad de vivir bien, de vivir mejor, ya que sólo así nuestra lengua vivirá en el futuro.

En ello estamos y a por ello vamos, sin miedo a tropezar en el camino. Vamos a dar el salto, sí. Con vosotras. Para vosotras.

Es así como entendemos las fiestas de Laudio. Dicen que el vasco es un pueblo que "canta y baila a ambos lados de los Pirineos", y las vecinas de Laudio y Aiaraldea también queremos celebrar así la vida; queremos bailar y cantar, desde el euskera y en euskera, por una sociedad mejor, por nuestra comunidad, por todas nuestras vecinas, por la transformación social, por las mujeres, por las personas excluidas, por la libertad, por nuestro idioma.

Fallou, Rocio, Andde, Gabriela, Arantza, David, Othman, Itziar, niños, niñas,

tuen alde, askatasunaren alde, gure hizkuntzaren alde. Fallou, Rocio, Andde, Gabriela, Arantza, David, Othman, Itziar, haurrak, gurasoak, gazteak, edade-tuak... Denok gara gure historiaren protagonista. Lerro hauek lekuko, zuekin batera piztu nahi dugu jaien hasiera suziria, bagarela gai eta bagarela nor ospatzeko.

madres, padres, jóvenes, personas mayores... Todas somos protagonistas de nuestra pequeña gran historia. Con estas palabras, queremos encender el cohete que da comienzo a las fiestas de San Roque, para celebrar que los euskaldunes somos y seremos en el futuro también.

Hizkuntza guztiak direlako gureak, geure hizkuntza geurea baldin bada.

Todas la lenguas son nuestras, si la nuestra es verdaderamente nuestra.

كل اللغات هي لنا، مادامت لغتنا حقا في ملكنا

Todas as linguas son as nosas linguas, se a nosa é verdadeiramente nosa.

Toutes les langues sont les nôtres si notre langue est la nôtre.

All languages are ours, if our own language is ours.

Gora Laudioko Jaiak!

Gora Laudio eta Aiaraldea euskalduna!

LAUDION, 2017ko abuztuak 14